

# Inbertsio Sozialki Arduratsuaren aldeko gure konpromisoa

---

# Inbertsio Sozialki Arduratsuaren aldeko gure konpromisoa

## Inbertsio Arduratsuaren 6 Printzipioak (PRI)

### 01

Ingurugiroa, gai sozialak eta gobernu onari dagozkion gaiak (ISG) gure inbertsiotako analisi eta erabakiak hartzeko prozesuetan barneratzea.

### 02

Aktiboen jabe izanik, aitzindariak izatea ISG alderdiak gure jardunbideetan eta politiketan txertatzen.

### 03

ISG alderdien zabaltze gardena burutzea, gure inbertsio-xede diren enpresen aldetik.

### 04

Inbertsioen sektorean Printzipioen onarpena eta ezarpena sustatzea.

### 05

Printzipioen aplikazioan eraginkortasuna hobetzeko taldean lan egitea.

### 06

Printzipioen aplikazioan gure jarduera eta aurrerapenen berri ematea.

2015eko abendutik, GEROA PENTSIOAK EMPLEGUKO BGAE, Inbertsio Arduratsurako Printzipioen (PRI) sinatzailea da.

Printzipio hauen xedea inbertsiogile instituzionalei ingurumen, arlo sozial eta gobernu onerako gaiak, inbertsioen aukeraketan eta aktiboen kudeaketan barneratzen laguntzea da eta, horrela, epe luzerako emaitzak hobetzea.

Nazioarteko jarraibide hauek jarraituz, enpresen funtsezko analisiaren osagarri diren, Inbertsio Sozialki Arduratsuari dagozkion politikak ezarri ditugu kudeatzen ditugun aktibo mota bakoitzerako. Horrela, aktibo mota bakoitzerako inbertsio aukerak ingurugiroari, arlo sozialari eta gobernu onari dagozkion estandarrak erabiliz sortzeko konpromisoa dugu.

Politika hauek urtero berrikusten dira eta hiruhileko kontrolak egiten dira hauek betetzen direla ziurtatzeko.

*Signatory of:*



## Gure konpromisoak

### INBERTSIO SOZIALKI ARDURATSUAREKIN KONPROMISOA (ISA)

Ingurumenari, arlo sozialari eta gobernu onari dagozkien gaiak gure analisi prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan barneratzeko konpromisoa dugu.

Besteak beste, akzioak edo bonuak ditugun enpresetan, ingurugiro, arlo sozial edota gobernu onari (ISG) lotutako istilu edo jarduera desegokiren batean murgildurik ez daudela egiaztatzeko azterlanak burutzen ditugu, Nazio Batuen Munduko Itunaren Printzipioetan oinarrituz.



<b>GIZA ESKUBIDEAK</b>
1. printzipioa: enpresek nazioarte mailan aitortutako oinarritzko giza eskubideen babesa bultzatu eta errespetatu behar dute, euren eragin esparruaren barruan.
2. printzipioa: enpresek ziurtatu behar dute euren enpresak ez direla giza eskubideen urraketen konplizeak.
<b>LAN ARLOA</b>
3. printzipioa: enpresek elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen benetako eskubidea bultzatu behar dute.
4. printzipioa: enpresek nahitaezko edo mehatxupean egindako lan mota oro desagertzea bultzatu behar dute.
5. printzipioa: enpresek haurren lana desagertzea bultzatu behar dute.
6. printzipioa: enpresek lanean eta enpleguan ematen diren diskriminazio praktikak desagertzea bultzatu behar dute.
<b>INGURUMENA</b>
7. printzipioa: enpresek ingurumena babesten laguntzeko prebentziozko ikuspegia izan beharko dute.
8. printzipioa: enpresek ingurumen erantzukizun handiagoa sustatuko duten ekimenak bultzatu behar dituzte.
9. printzipioa: enpresek ingurumenarekin errespetuzkoak diren teknologien garapena eta hedapena bultzatu behar dute.
<b>USTELKERIAREN KONTRA</b>
10. printzipioa: enpresek ustelkeriaren kontra egin behar dute arlo guztietan, estorsioa eta eroskeria barne.

## **ARRISKUEN KUDEAKETA**

Inbertitzen dugun aktiboetan, merkatuei dagozkien finantza arriskuak ez ezik, ingurugiro, gai sozial eta gobernu onari dagozkien arriskuak ere kontutan hartzen ditugu, gure inbertsio printzipioekin bateragarriak izan eta inbertsioetarako epe ertain edo luzerako errentagarritasun/arrisku hobea duten enpresak hautatu asmoz.

Klima Aldaketak sortutako arrisku eta aukerak bereziki aipagarriak dira. Inbertsio taldeak, besteak beste, klima-aldaketari erantzuteko araudi berrietara ez egokitzeak, teknologia garbiago eta eraginkorragotara egokitzeko erresistentziak, baliabide naturalen erabilera okerrak edota hondakinen kudeaketa txarrak eragindako arriskuak minimizatzeko enpresak hautatuko ditu. Bestalde, ingurumenari lagundu eta inbertsio aukera bat aurkezten duten enpresen aldeko apustua egingo du, hala nola energia berriztagarriak, energia eraginkortasuna eta uraren kudeaketa.

2018ko abenduan, Geroa Pentsioakek Klima Aldaketari aurre egiteko bidezko trantsizioaren aldeko aitortpena sinatu zuen. Bidezko trantsizioa berotze globalaren aurkako borrokan, ISG alderdi guztiak barne hartzen dituena da: langileekin eta komunitateekin elkarrizketa soziala, giza eskubideen errespetua, lanpostu berriak baldintza duinetan sortzeko eta bermatzeko konpromisoa eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzean dituena, besteak beste. Azken batean, Klima Aldaketaren eragin negatiboak murrizten dituzten ekintzak egitea da, herritarrak eta komunitateak babestuz.

## AZKIODUN AKTIBOAK

Inbertitzen dugun enpresetako kapitalean partaidetza-maila jakin bat dugunean, gure bozka eskubidea jorratzen dugu. Gure bazkideen interesen izenean bozkatzten dugu, betiere enpresaren epe luzeko iraunkortasunaren aldeko apustua eginez eta ingurumen, gai sozio-laboral eta gobernantza oneko irizpideak kontutan hartuz.

Hala ere, elkarrizketa aktiboa edota bozka eskubidea jorratuko ditugu, estatuko zein atzerriko enpresetan, gure printzipioekin bat ez datozen jokabideak edo ekintzak antzematen baditugu.

Ildo horretan, aipatzekoa da Nazio Batuen Munduko Itunaren Printzipioetan eta Nazio Batuen Emakumeak Ahalduntzeko 7 Printzipioekin dugun konpromisoa dela eta, elkarrizketa aktiboa edo Akziodunen Urteko Batzar Orokorretan bozka jorratuko dugula Munduko Itunaren printzipioen bat hautsi edota kontseiluetan emakumerik ez dagoen enpresetan.

EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO 7 PRINTZIOAK
1. Printzipioa: genero berdintasuna lortzeko goi mailako enpresa lidergoa ezartzea.
2. Printzipioa: Emakume eta gizon guztiak modu egokian tratatzea: giza eskubideak errespetatu eta babestea eta bereizkeriarik ez egitea.
3. Printzipioa: langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzea.
4. Printzipioa: emakumeen hezkuntza, prestakuntza eta garapen profesionala sustatzea.
5. Printzipioa. Emakumeak ahalduntzen dituzten negozioen garapena, hornikuntza katea eta merkaturatzeko praktikak ezartzea.
6. Printzipioa: ekimen komunitarioen eta sustapenaren bidez berdintasuna sustatzea
7. Printzipioa: genero-berdintasuna lortzeko bidean aurrerapena neurtu eta publikoki berri ematea.

Horrez gain, beste Inbertsiogile batzuekin lankidetzan arituko gara, finantza-sektorean inbertsio sozialki arduratsua sustatzen duten ekimenetan.

## **KONTZIENTZIAZIOA**

Erantzukizun korporatiboa, iraunkortasuna, ekonomia errealearen finantzazioa, epe luzeko errentagarritasuna eta gardentasuna sustatzeko Inbertsioen kudeaketa alorraren egokitzapenean, Inbertsio Sozialki Arduratsuak duen garrantziaz kontzientziazteko lan egingo dugu.

Inbertsio Sozialki Arduratsua, inbertitzen dugun enpresetan politika arduratsuak sustatzeko tresna bat da. Izan ere, inbertitzen den enpresarekin lotura duten eragile guztiak kontutan hartzeaz gain (langileak, kontsumitzaileak, gizarte zibila), konpainiaren epe luzerako iraunkortasuna, baliabide naturalen erabilera eraginkorra eta ingurumenaren babesa ere jorratzen ditu.

Inbertsio Sozialki Arduratsuak, irizpide finantzario eta extra-finantzarioak (ingurumena, gai sozio-laboralak eta gobernu ona) kontutan hartzen ditu gure bazkideentzako errentagarritasuna lortu eta gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa lortzeko. Inbertsio Sozialki Arduratsua ez da inbertsio solidario edo irabazi-asmorik gabeko inbertsioekin nahasi behar.

## **GARDENTASUNA**

Printzipioen ezarpenean gure aurrerapenen berri emango dugu.

Zentzu honetan, urtero, entitatearen Batzar Nagusia ospatu ondoren, gure webgunean ([www.geroa.eus](http://www.geroa.eus)) Inbertsio Sozialki Arduratsuari (ISA) buruzko informazioa argitaratuko dugu dokumentazio honen bidez:

- 1) Inbertsio Sozialki Arduratsuaren (ISA) aldeko gure konpromisoak.
- 2) Geroa Pentsioak Inbertsio Sozialki Arduratsuaren politika (Langileen eremua)
- 3) Inbertsioarekiko Sozialki Arduratsuko adierazle eta ekintza nagusiak.
- 4) Urteko PRI gardentasun txostena.
- 5) Urteko Memoria.

## EKARPENA GIZARTEAN

### - GIPUZKOAN ETA EUSKAL HERRIAN INDUSTRIA EHUNA SORTZEA

Inbertsiogile Instituzional gisa, tokiko enpresetan inbertitu eta gure ekonomiaren garapena sustatzea gure betebeharra dela uste dugu. Hori dela eta, finantza merkatuetan kotizatzen duten enpresei dagozkien balioetan inbertitzeaz gain, beste 4 inbertsio lerro ere baditugu:

- Proiektu ekintzaileak dituzten bazkideei laguntza eskaintzen diegu.
- Enpresa Hasi-berrietan edo bertako “Start-up”etan inbertitzen dugu.
- Orza bidez, hazkunde potentzial handiko enpresa berri edo “Start-up”etan eta balio erantsi handiko enpresetan inbertitzen dugu.
- Tokiko enpresei Kredituak.

### -INGURUMEN ETA GAI SOZIALETARA BIDERATURAIKO INBERTSIOAK

Gure inbertsioak oso dibertsifikatuta dauden arren, azpimarratzekoa da gizarte edota ingurumen arloetan zuzenean edo zeharka eragiten duten inbertsioekiko dugun konpromisoa.

- **Osasuna:** Osasuna eta ikerketa medikoa hobetzea. Elikadura osasuntsua.
- **Gizarte ongizatea:** Biztanleriaren zahartzea eta aldaketa demografikoak adibidez.
- **Teknologia:** Gizartearen digitalizazioa, produkzio industrialak hobetzea, robotika, energia eraginkortasuna, etab.
- **Azpiegiturak:** Garraioa, komunikazioa, banaketa, ospitaleak, etab.
- **Ingurumena:** Energia berriztagarriak, energia alternatiboak, ura eta saneamendua, etab.